



**OGASUN ETA EKONOMIA SAILBURUAREN AGERRALDIA
EUSKO LEGEBILTZARREKO OGASUN ETA AURREKONTU
BATZORDEAREN AURREAN EUSKADIKO 2018
EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORREI BURUZKO
LEGE PROIEKTUA AURKEZTEKO**

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 6a

0. Sarrera.

Denok dakizuen bezala, joan den urriaren 24an Euskal Autonomia Erkidegoko 2018 ekitaldirako Aurrekontuei buruzko Lege Proiektua onartu genuen Gobernu Kontseiluan, joan den astelehenean, urriak 30, Legebiltzar honetan erregistratu genuena, eta orain batzorde honen aurrean aurkeztuko dudana.

Euskal ekonomiak pixkanakako suspertze-profil bat erakusten duen egoera batean Jaurlaritzak prestatu duen aurrekontu-proiektu bat, nahiz eta ekonomia beherako joera-arriskuen mende dagoen, faktore endogenoengatik baino gehiago gure

ingurunearen bilakaerak dituen ziurgabetasun-elementu ugariengatik.

Esparru horretan, Jaurlaritzak aurrekontu-proiektu bat konfiguratu du, funtsezko zerbitzuek eta prestazio publikoek – bereziki osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-kohesioko politiken esparruetan– osatutako babes sozialeko euskal ereduarekin duen konpromisoa berrestez gain, bere apustua errepikatzen duena bidea urratzen ari den hazkunde-espektatibari lagun egiteko, inbertsio publikoari beste bultzada bat emanik.

Hauek izango dira, beraz, nire mintzaldiak izango dituen oinarritzko hiru ardatzak.

Hasteko, orain dugun testuinguru makroekonomikoa analizatuko dut; izan ere, horren inguruan eraiki da orain aurkezten ari garen proiektua. Gero, testuinguru ekonomiko eta finantzarioa deskribatuko dut, Jaurlaritza, proiektua prestatzeko, hari lotu behar izan baitzaio. Jarraian, Jaurlaritzak 2018rako aurrekontuen bidez zer helburu lortu nahi dituen azalduko dut, baita horien ezaugarri nagusiak ere. Eta amaitzeko, Aurrekontuei buruzko Lege Proiektuaren testu artikulatuak zer berritasun dituen errepasatu ondoren, Ogasun eta Ekonomia Sailaren aurrekontuak ere aipatuko ditut.

1. 2018rako Aurrekontuen testuinguru makroekonomikoa.

2018rako Aurrekontuak halako baikortasun batek markatutako nazioarteko testuinguru ekonomiko batean prestatu dira.

2017ko lehen sei hilekoan, munduko ekonomia % 3,5 hazi zen, eta horrek pentsarazten du urte osorako egindako aurreikuspenak, NDFak duela gutxi % 3,6an kokatu dituenak, probabilitate handiz beteko direla. Munduko ekonomiaren tonu ona datorren urtera arte mantenduko da, eta % 3,7ko gehikuntza kalkulatzen da harentzat.

Estatu Batuak atzean uzten ari dira 2016an izan zituzten arazo puntualak eta tonu hedakorra berreskuratzen ari da, % 2,1eko gehikuntzarekin 2017aren lehen erdian, eta segidako lau hiruhileko daramatza bizkortzen. Aurreikuspenek ez dute hobekuntza-marjina handirik ematen eta % 2,2ko eta % 2,3ko erritmoak aurreratzen dituzte aurten eta datorren urtean. Haren alde dira enpleguaren bultzada handia eta langabezia-tasa murrizta, dagoeneko % 4,3an dagoena, kontsumoaren hazkundera eta inbertsio pribatua errazten dituztenak.

Bilakaera antzekoa da Europar Batasunean: % 2,2 erritmora iritsi da 2017aren lehen sei hilekoan eta urte osorako % 2,3ko

aldakuntza proiektatzen du, 2018an % 2,1ean kokatuko dena. Arloko ekonomia handi guztiak batu zaizkio bizkortze horri eta bat egiten ari dira tasetan, nahiz eta oraindik nabarmena den ekonomia espainiarraren (% 3,1) eta alemanaren (% 2,0) bultzada, baina Frantzia % 1,7an ari da hazten, eta Italia % 1,5ean. Erresuma Batua ia ez da ahuldu Brexitak sortutako ziurgabetasunagatik eta % 2,0tik beheraxeagoko datua du urtearen lehen erdian.

Joan den urrian, Europako konfiantza ekonomikoa 2007tik ezagutzen ez ziren mailetan kokatu da eta espainiarrak ere bere mailarik handiena lortu du 2015etik.

Garatzeko bidean diren herrialde guztientzat, NDFaren aurreikuspenak bizkortze arineko profila erakusten du urte honetarako eta hurrengorako, % 4,6ko emaitzarekin 2017an eta % 4,9koa 2018an. Herrialde asiarrak, Txina eta India buru direla, arloko motorrak izango dira berriz, baina espero den hobekuntza Errusiatik, Latinoamerikatik eta Afrikatik dator; izan ere, 2016koak baino hazkunde handixeagoak izango dituzte, lehengaien prezioen suspertzeari esker.

Euskal ekonomiak, berriz, tonu hedakorra izan du 2017ko lehen sei hilekoan zehar, eta aldi horretan % 2,8 hazi da. Inflazio txiki batek, diru-politika hedakor batek eta euro nahiko merke batek, enplegu-sorrera indartsuak eta ingurunearen

suspertzeak ematen dioten inertzia aurreikusitakoa baino handiagoa da.

Enplegu-sorrera zikloaren fase hedakorren zutabeetako bat da. Horrela, 2017ko lehen sei hilabeteetan lanaldi osoko lanpostuen kopurua % 2,1 igo zen, eta horrek esan nahi du 45.000 enplegu inguru berreskuratu direla 2014tik, baina oraindik 70.000 inguru falta dira krisiaren aurreko mailara itzultzeko.

Informazio horrekin guztiarekin, Ogasun eta Ekonomia Sailak 2017-2018 aldirako koadro makroekonomikoa berrikusi du, eta Eusko Jaurlaritzak BPGd-aren % 2,9ko hazkundera aurreratzen du 2017an eta % 2,4koa 2018an.

2018ko enplegu-sorrera % 1,7an finkatzen da; zifra horrek iradokitzen du lanaldi osoko beste 15.500 lanpostu sortuko direla, eta datorren urteko batez besteko zifrak 930.000koa gaindituko duela, gero eta hurbilago 2008ko 985.000etatik. Langabezia-tasak jaisten jarraituko du eta 2018an % 10etik behera kokatzeko helburura hurbilduko da.

2. 2018ko Aurrekontuen testuinguru ekonomiko eta finantzarioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2018 ekitaldirako Aurrekontu Orokorren proiektuak, 11.486,4 milioi eurokoak, % 3,9ko

gehikuntza du 2017 ekitaldirako onartutakoen aldean, eta 426,7 milioi euroko igoera oro har.

Eusko Jaurlaritzak inoiz izan duen aurrekonturik handiena da, eta zerga-kontsolidazioko esparru batean planteatzen da, 2020an zero defizit batera eta BPGd-aren % 13tik beherako zor-maila batera iristeko helburuarekin.

Izatez, zorraren amortizaziorik gabe eta "Y"-aren eraginarekin, 290,4 milioi euroko aurrekontu-gehikuntza bat ikusten da, hots, % 2,9ko hazkundera iazkoaren aldean.

Diru-sarrerei dagokienez, Foru Aldundien ekarpenek 420,1 milioi euroko gehikuntza dute, 2017ko 9.103,2 milioietatik 2018ko 9.523,3 milioietara igaroz. Hori diru-sarreren aurrekontu globalaren % 82,9 da.

Era berean, uztailaren 19ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren baitan hartutako konpromisoen barruan ere konfiguratu dira. Horietan jasotzen denez, defizita % 0,6tik % 0,4ra murriztu behar da -150 milioi euro erabilgarri gutxiago-2018an eta zor publikoa ez da izan behar BPGd-aren % 14,2tik gorakoa.

2018ko aurrekontu-proiektuko zorraren amortizazioari dagokionez, 325,5 milioi euroko gehikuntza bat gertatu da, 2017ko 788,4 milioietatik aurtengo 1.113,9 milioietara igarota.

Inbertsioen, kapital-transferentzien eta aktibo finantzarioen igoeraren bilakaera analizatuta, 942,6 milioi euroetarainoko gehikuntza ikusten da, hots, 2017an baino 64,6 milioi gehiago. Aurrekontu-proiektu honek euskal trenbide-sare berriaren (euskal Y eta hegoaldeko saihesbidea) kudeaketa-kredituen gauzatzea egokitzen du; 2017an aurreikusitako 350,5 milioietatik 2018rako jasotako 161,4 milioietara igarotzen da. Eusko Jaurlaritzaren ustez, zifra hori aurreikusitako programaziora egokitutako zenbatekoa da. Inbertsioak, euskal Y-aren eta hegoaldeko saihesbidearen kudeaketa-kredituak jaitsitakoan, % 7,4 igotzen dira. Horrekin, Jaurlaritza inbertsio-erritmoa berreskuratzen ari da.

Euskal ekonomia dagoen suspertze ekonomikoaren esparruan ere, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana 2020aren aldeko apustua nabarmendu behar da; izan ere, Jaurlaritzak 433,3 milioi euro bideratuko ditu, Hezkuntza, Osasun, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako, Gobernantza Publiko eta Autogobernu eta Lehendakaritza Sailen artean banatuta. Horrek 22 milioi euroko gehikuntza dakar –% 5,4– 2018aren aldean eta, hortaz, Jaurlaritzak hartutako konpromisoa bete eta gainditzen da.

3. 2018ko Aurrekontuen ardatzak: gizarte-politikak eta enplegua sortzea.

Eusko Jaurlaritzak leial jarraitzen du politika publikoak bermatzeko eta hobetzeko eta garapen ekonomikoa eta enplegua indartzeko bere konpromisoekin. Horrela, aurrekontuaren % 77 gastu sozialera bideratzen da (Osasuna, Hezkuntza eta Gizarte Politikak), eta inbertsio publikoak bultzatzen dira aldi berean.

Adierazi nahi dut, baita ere, kalitatezko zerbitzu publiko batzuk bermatzeko kontuan izan behar dela zer baldintzatan lan egiten duten administrazioko langileek. Krisi gogor batetik sortutako arazo saihetsezinen ondoren, Jaurlaritzak helburutzat hartu du ordainsarien eta langile-zerrenden hobekuntzan urrats argiak ematea. Hori guztia jarraian aipatuko ditudan zifretan ikusten da.

Osasuna da gehikuntza handiena izan duen Saila, 3.671 milioi eurotik gorako aurrekontu batekin. Hori 2017an baino 128 milioi euro gehiago da. Partida nagusiak dira Osakidetzarena, 2.750 milioi euro baino gehiagorekin, eta Farmaziarena eta Tratamenduei atxikitze laguntzena, 518 milioitik gorako zenbatekoarekin. Gainera, aurten Osakidetzan inbertsioak aurreikusten dira, 66,8 milioiko baliokoak.

Hezkuntzak, berriz, ia 2.717 milioi euro ditu. Horrek % 1,9ko gehikuntza adierazten du 2017aren aldean modu erlatiboan; hala ere, oro har, 51 milioi eurotik gorako gehikuntza du, eta 2017. urtearen aldean gehien hazi den bigarren saila da.

Hemen nabarmendu nahi dut Hezkuntzaren kapituluak bultzada osagarri handia jasoko duela 2017an gauzatu behar den gastuan, EIBMaren akordioen ondorioz sortutako diru-sarrerek ahalbidetzen dutena. Horrela, kontuan hartuko balitz Sailaren gastuaren hazkundera langile-gastuak aintzat hartu gabe, % 3,5eoa izango litzateke.

Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak, aurrekontuaren zenbatekoaren aldetik hirugarrenak, 1.014 milioi euro aurreikusten ditu. DSBEak % 1,5eko eguneratze bat du, sektore publikoko langileen soldatek bezala, eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriarekin batera 491,3 milioi euroko gastua dakar. Gizarte Larrialdiko Laguntzek 27 milioi eurotan jarraitzen dute. Politika aktiboen zuzkidura, bestetik, 15,6 milioitan gehitzen da Lanbideren aurrekontuen barruan, 333,5 milioi euroetaraino.

Bestetik, **Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako** Sailaren datuek azalpen bat behar dute euskal trenbide-sare berriaren kudeaketa-kredituen gauzatzea murriztu ondoren. 2017an, Sailak 694 milioi euroko aurrekontu bat maneiatu zuen

aurrekontuan horretarako sartutako 350 milioiak egokitu ondoren. 2018an, Sailak 727 milioi euro ditu, aurrekontuan sartutako kantitate berriarekin eragiketa bera egin ondoren, hau da, urte honi dagozkion 161 milioiak egokituta. Horrela, % 4,8ko hazkundera du, hots, 33,3 milioiko gehikuntza. Horren mugarri diren partida nagusiak dira azpiegituretako inbertsioak, 14,3 milioitara igotzen direnak, eta industria, nekazaritza eta arrantzako programak, 4,6 milioitan igo direnak.

2018an, **Segurtasunak** 640 milioi euroko aurrekontua maneiatuko du, 15 milioi inguruko gehikuntzarekin. Partida nabarmenenak dira langile-gastuak, 489 milioitara igotzen direnak, eta Polizia Akademiari egindako ekarpenak (15 milioi euro).

Aldi berean, **Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitza** Sailak 206 milioi euro inguru ditu eta 14 milioiko gehikuntza izan du 2017aren aldean. Ingurumeneko inbertsioen bultzada bat berreskuratu da eta ingurumen-kudeaketarako zuzkidurak indartu dira, IHOBEn eta URAn bidez. Gainera, etxebizitzarako zuzkidura 8 milioi eurotan gehitu da, etxebizitza eskuratzeko eskubide objektiboa bermatzeko.

Lehendakaritzak 117,6 milioi euro izango ditu 2018an, Garapenerako Lankidetzaren finkatzen den aurrekontu batean, 45

milioi euroekin; Emakunderen eta Gogora Institutuaren aurrekontuak ere gehitu egiten dira.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak 5,5 milioiko igoera du, 118 milioi euroko aurrekontu bateraino 2018an.

Kultura eta Hizkuntza Politikako Saila % 3 hazten da, 250 milioi euroetaraino, eta 4,8 milioiko zuzkidura osagarri bat gehitzen du EITBrentzat, eta 2 milioitik gorakoa euskarako matrikulen laguntzetarako.

Lan eta Justizia Sailak 209 milioi euro maneatuko ditu eta **Turismo, Merkataritza eta Kontsumo** Sailak % 2,9an gehitzen du bere aurrekontua, 38 milioi eurotik gorako zenbatekoarekin. Azkenik, **Ogasun eta Ekonomia** Sailak 50 milioi euroko aurrekontua maneatuko du.

2017rako Aurrekontu Proiektua **sailkapen ekonomikoaren** perspektibatik analizatzen bada, I. kapituluaren zenbatekoak (**Langile-gastuak**) administrazioaren zerbitzurako langileen ordainsariaren % 1,5eko gehikuntza jasotzen du eta, gainera, Itzarri gizarte-aurreikuspeneko erakundeari egindako ekarpenak gehitzen dira, puntu erdiarekin, puntu bateraino igo daitezkeenak ekitaldian zehar Gobernu Kontseiluaren akordio bidez.

Gastuaren IV. kapituluak (**Transferentziak eta diru-laguntzak**) 3.449,9 milioi euroko bolumena du. Antzeko zifra, 3.510,8 milioi euro, bideratzen da II. kapitulura (**Funtzionamendu-gastuak**), Osakidetzaren Programa-Kontratuaren zuzkidura barnean hartzen duena.

Aurreko hiru gastu-kapituluetako jarduketek barnean hartzen dituzte Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBEaren) finantzaketa edo Euskal Hezkuntza Sistemaren finantzaketa, gastu-zenbateko handienak dituzten jarduketa batzuk aipatzearen.

III. kapituluko gastuei (**Finantza-gastuak**) dagokienez, 233,3 milioikoak dira, 2017ko 248,3 milioi euroen aldean.

4. 2018 ekitaldirako Aurrekontuei buruzko Lege Proiektuaren testu artikulatua.

Jarraian, 2018 ekitaldirako Aurrekontuei buruzko Lege Proiektuaren testu artikulatuak aurreko ekitaldien aldean dituen berritasunei buruzko aipamen laburra egingo dut.

Aurreko testuen sistematikari jarraituz, Lege Proiektuak 5 titulu, 32 artikulua, 14 xedapen gehigarri, xedapen

indargabetzaile bakarra, 2 azken xedapen eta hura osatzen duten 4 eranskin ditu.

I. tituluan, Administrazio Orokorraren eta erakunde autonomoen diru-sarrera eta gastuen egoera guztiak onartzen dira, eta zuzenbide pribatuko erakundeen eta sozietate publikoen zuzkidurak, baita sektore publikoko fundazioen eta Haurreskolak Partzuergoaren aurrekontuak ere. Berritasun interesgarri bakarra da Nazioartekotzearen Euskal Agentzia sortu berriaren eta 2018 ekitaldian zehar Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Saileko Nazioartekotze Zuzendaritza ordeztuko duenaren aurrekontuak sartzea.

I. tituluaren barruan, gainera, 9. eta 10. artikulua, korrelatiboki, berme-prestazioaren eta birfidantzamenduaren eta zorpetze-eragiketen mugak ezartzera bideratzen dira.

Horrela, beraz, 9. artikulua 400 milioi euroko zenbatekoan finkatzen du Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edo, hala badagokio, Finantzen Euskal Institutuaren berme-prestaziorako muga. Aurreko urteetan bezala, datorren ekitaldirako ahalbidetzen da, baita ere, birfidantzamendu-eragiketek estaldura finantzarioa ematea enpresa indibidualei, autonomoei eta ETEei emandako urte anitzeko finantzabideei, artikulua horretan esplizitatzen diren premiei eta jarduketei erantzuteko,

eta 600 milioiko zuzkidura maximoa ezartzen da birfidantzamendu horretarako.

10. artikulua, berriz, epe luzeko zorpetzearen mugak zehazten ditu, bai Autonomia Erkidegoko Administrazioarenak, bai zuzenbide pribatuaren arabera arautzen diren haren Administrazio Instituzionaleko erakundeak. Horri buruz, adierazi behar da Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean lortutako akordioaren arabera ezarri dela 2018 ekitaldian zehar zorpetzera jotzea, Ekonomia Itunaren 62.b) artikuluan xedatutakoaren babesean. Horren arabera, 2018 ekitaldirako defizit-helburutzat jotzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren BPGd-aren % 0,4.

Titulu hori, azkenik, Lege Proiektuaren I. eranskinak emandako informazioarekin osatzen da –2018 ondorengo ekitaldietarako konpromiso-kredituak jasotzen ditu–; eta II. eranskinekoarekin –sozietate publikoen ustiapen- eta kapital-aurrekontuetan kalkulaturako zuzkidurei eta baliabideei buruzkoa–.

II. tituluak, aurrekontuen edukiari dagokionez, gastuen egoerekin lotutako zenbait xedapen aurreikusten ditu. Horrela, I. kapituluaren (11. artikulutik 13.era) zenbait kreditu motari buruzko espezialitate jakin batzuk jasotzen ditu.

11. artikulua zabalgarrien kalifikazioa egiten du, Lege Proiektuaren III. eranskinean zehazten diren kredituen nahitaezko aitortza duten betebeharren batura berdin bateraino. III. eranskin horri dagokionez, adierazi behar da ekitaldi honetan ez dela kasu berririk sartu kreditu zabalgarrien zerrendaren barruan.

II. kapituluak (14. artikulutik 18.era) aurrekontu-aldaketei buruzko espezialitate jakin batzuk dauzka eta, bereziki, transferentzien araubideari lotutakoak. Aurreko ekitaldian bezala, (18.2 artikulua), Gobernu Kontseiluari ahalmena ematen zaio Finantzen Euskal Institutuaren aurrekontuetan aldaketak baimentzeko, Europako Inbertsio Bankuak emandako finantzaketaren ondoriozkoak, Euskal Autonomia Erkidegoko jardura ekonomikoaren sustapenera bideratutako finantzabideak ezartzean aplikatzeko.

Titulu honen III. kapituluak ordainsari eta hartzeko pasiboen araubidez arduratzen da. Baina ez du jasotzen lan-araubidearen mende ez dauden langileen oinarrizko ordainsarien zenbatekoa, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak finkatu behar duena, oraindik ez delako onartu 2018rako lege-proiektua.

Hala ere, Proiektuaren 19. artikulua aukera aurreikusten du, sektore publikoaren zerbitzurako langileen gastuei lotuta eman

daitezkeen oinarrizko xedapenak gorabehera, lan-araubidearen mende ez dauden langileen eta langile lan-kontratudunen ordainsariak behin-behinean eta modu iragankorrean gehitzeko, ehuneko 1,5eko ehunekoan 2017 ekitaldian ezarritakoen aldean.

Era berean, xedatzen du gehikuntza horren zenbateko globala, hala badagokio, osagarri iragankor gisa ordaintzea, Administrazio Publikoetako funtzionarioen 2018 ekitaldirako oinarrizko ordainsariak zehaztu arte.

Gainera, Gobernu Kontseiluari ahalmena ematen zaio, oinarrizko ordainsari horiek egokitutakoan, funtzionarioen eta Ertzaintzaren lanpostu-mailako urteko osagarriaren zenbatekoa zehazteko, baita gainerako ordainsari osagarrien zenbatekoa zehazteko ere.

Bestetik, gobernukideen, goi-kargudunen, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko eta Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioetako behin-behineko langileen eta zuzendaritzako langileen ordainsariak ere ehuneko 1,5eko gehikuntza izan dezakete, 2017an indarrean zirenen aldean. Hori guztia sektore publikoaren zerbitzurako langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarrizko xedapenei kalterik egin gabe.

Aurreko urteetan ez bezala, 2018 ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek gizarte-aurreikuspeneko sistemei ekarpenak egiteko aukera aurreikusten da, ekitaldi horri dagozkion langileen gastuetarako zuzkiduren % 0,5eko gehieneko mugarekin. Hala ere, ehuneko hori gehienez % 1eraino gehitu daiteke, Gobernu Kontseiluak horrela erabakitzen badu.

Aitzitik, datorren ekitaldirako ez dago aurreikusita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen zerbitzurako langile guztien aparteko ordainsariaren ordainketa aurreratzea, 2013, 2014, 2015 eta 2016 ekitaldietan eta, zati batez, 2017an egin zen bezala. Politika ekonomiko eta aurrekontu-eragineko neurri horren xedea zen 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kentzearen ondorioz sortutako eragin ekonomikoak arintzea. Estatuak oinarrizko izaeraz kendu zuen hori, eta 2017 ekitaldi honetan amaituko da hura berreskuratzen, joan den ostegunean ganbera honen Osoko Bilkurak onartutako Aurrekontuei buruzko Legea aldatu ondoren.

Diru-sarrerei dagokienez, joan den urriaren 11n egindako Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren bileran adostutako Foru Aldundien ekarpenez gain, 28. artikuluan aurreikusten da Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren tasak ere %

1,5 gehitzea 2017 ekitaldian eska zitekeen zenbatekoaren aldean.

Azken zatian, Lege Proiektuak hamalau xedapen gehigarri aurreikusten ditu, modu ez egituratuan aurrekontua betearazteko araubide orokorrari buruzko zenbait espezialitate ezartzen dituztenak, beste arau batzuek Aurrekontu Orokorrei buruzko Legera egiten duten igortzea betetzen dutenak, jarduketa jakin batzuk baimentzen dituztenak edo alderdi marjinalak arautzen dituztenak.

Xedapen horien artean, zazpigarren xedapen gehigarria maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuan, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoan aurreikusitako prestazioen zenbatekoari buruzkoa da, 2018 ekitaldian zehar haren zenbatekoa zehazteko. Gaur egun indarrean den araubidearen behin-behinekotasunak, 2017 ekitaldian gertatu den bezala, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren zenbatekoaren hazkunde bat ezartzea gomendatzen du, haren edozein modalitatetan, baita bizikidetzaren unitate gurasobakarrentzako hileko sorospen osagarriarena ere, eta % 1,5eko gehikuntza aurreikusten du 2017 ekitaldian zehar aplikatutako zenbatekoaren aldean.

Zortzigarren xedapen gehigarriak zenbateko finkoa ezartzen du Etxebizitzarako Prestazio Osagarrirako, eta prestazio horren indarraldiaren araubide iragankor bat aurreikusten du

ekainaren 18ko 3/2015 Legea, Etxebizitzari buruzkoa, garatuko duten arauzko xedapenak indarrean jarri arte, prestazio ekonomikoen sistema bat modu subsidiarioan ezartzeari dagokionez, etxebizitza duin eta egoki bat eskuratzeko eskubide subjektiboa bermatzeko.

Hamabigarren xedapen gehigarriak, berriz, "Bizigune" programako etxebizitza lagatzeagatiko kontraprestazioaren gehieneko zenbatekoa ezartzen du, ondorioak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituen, alokairuko etxebizitza-merkatuaren egungo baldintzekin egokiagoa den gehieneko zenbatekoa ezarrita.

Xedapen gehigarrien artean, berritasun gisa, hamahirugarren eta hamalagarren xedapen gehigarriak gehitu dira.

Hamahirugarren xedapen gehigarriak aurreikusten du SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia eraldatzea, eta orain zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa konfiguratzeko da. Erakunde horren xedea, orain arte bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sustapen ekonomikoko politikaren tresna gisa jardutea izango da. Hala ere, erakundearen Estatutuak Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez onartuko dira industria-politikaren eta enpresa-lehiakortasunaren arloan eskumena duen sailak eskatuta, eta haren kideen funtzioak, osaera eta izendapena arautuko

dituzte, baita erakunde horren egoitza, egitura organikoa eta funtzionatzeko araubidea ere. Egiaz, antolaketa-erabaki horrek eta aurrekontu-arau baten bidez egiteko aukerak berekin dakarte SPRIk orain arte merkataritza-formapean garatzen zituen jardueren irakurketa publiko bat egitea. Orbita instituzionalaren tresna bat sortzea ere badakar, 2017-2021 Industrializazio Planak eta Nazioartekotze Planak behar duten kudeaketa zuzen egiteko, arlo horretan garatu behar diren sustapen-gaitasunen bidez.

Azkenik, eta ia aurreko xedapen gehigarriaren ondorio gisa edo antolaketa-integrazioa behar duten beste prozesu batzuk errazteko, hamalagarren xedapen gehigarriaren bidez baimena ematen zaio Jaurlaritzari, berrantolaketa administratiborik badago, behar den guztia arautu eta erabaki dezan sektore publikoko edozein erakunde sortu, desegin edo eraldatzearen ondorioz sor daitezkeen kontratu-harremanetan eta edozein motatako eskubide eta betebeharretan subrogatzeari dagokionez eta, bereziki, haren zerbitzurako langileak sektore publikoko beste erakunde batean atxiki eta integratzeari buruz, hari aplikatzekoa den laneko edo funtzio publikoko legeriari jarraikiz.

Xedapen indargabetzaile bakarrak, "SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia" sortu eta "Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako

Sozietatea SA" desagertzea baimentzen duen hamahirugarren xedapen gehigarriak aurreikusitakoarekin bat etorrira, ekainaren 10eko 5/1981 Legea, "Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua sortzeari" buruzkoa indargabetzen du, haren indarraldia mantentzeari kalterik egin gabe, xedapen gehigarri horretan aurreikusitakoaren ondorioz sortutako erakunde publikoaren jarduerak hasi arte.

Lege Proiektua bi azken xedapenekin osatzen da. Azken xedapenetatik lehenengoak jarduketa-mandatu edo osagarri arauemaile bat egiten du, eta lehen paragrafoan baimena ematen dio Jaurlaritzari, Ogasun eta Ekonomia sailburuak proposatuta, legea garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan. Azken xedapenetatik bigarrena legea indarrean jartzeari buruzkoa da.

Esan bezala, Lege Proiektuaren artikulatuari lau eranskin gehitu zaizkio, eta horietako bakoitzak, hurrenez hurren, alderdi hauek ditu aipagai: 2018an sortzen diren konpromiso-kredituak, sozietate publikoen aurrekontuak, kreditu zabalgarriak eta hezkuntza-itunetarako modulu ekonomikoen osaera.

5. Ogasun eta Ekonomia Sailaren Aurrekontua 2018.

Jarraian, Ogasun eta Ekonomia Sailaren datorren urterako aurrekontuaz hitz egingo dut, 50,8 milioi euroko zuzkidura izango duenaz.

2017aren aldean, 1.928.000 euroko gehikuntza erregistratzen du, hots, % 3,9.

Dakizuen bezala, pisu erlatibo oso txikiko sail bat da Jaurlaritzaren barruan, eta bere funtzioak ekonomiaren, aurrekontuen eta kontrol ekonomikoaren, ogasunaren eta finantzen eta ondarearen eta kontratazioaren esparrukoak dira. Gastuaren zati handiena egitura-izaerakoa da.

Gastuak sailkapen ekonomikoaren ikuspegitik analizatzen baditugu, hauxe ikusten dugu: I. kapitulua, "Langile-gastuak", 519.400 euro igo da lehenago aipatu dudan % 1,5eko ordainsari-gehikuntzagatik eta beste lerradura batzuegatik, Gizarte Segurantzaren kotizazioen oinarrien gehikuntzagatik eta langileen aseguruaren sarien gehikuntzagatik.

II. eta IV. kapituluek % 7ko eta % 2,6ko gehikuntza dute, hurrenez hurren, 2017aren aldean.

IV. kapituluaren barruan, gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak Sailaren transferentzia-kapitulu honen barruan daude, EUSTAT Euskal Estatistika Erakundearen jarduera 11.407.474 euroekin finantzatzeko, eta Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera ordaintzeko, ia milioi bat euroko partida batekin.

II. kapituluaren aldakuntza aseguru-sarien kostua ordaintzera bideratutako ordainketa-kredituen gehikuntzak sortu du batik bat.

VII. kapituluari dagokionez, % 5,5 gehitzen da modu erlatiboan, eta 100.000 eurotik gorako zifra batera igotzen da oro har, estatistika-programako gehikuntzagatik.

Eta ez nuke amaitu nahi Ogasun eta Ekonomia Sailari atxikita dauden administrazio instituzionaleko erakundeen aurrekontuak aipatu gabe.

Lehenik, EUSTAT Euskal Estatistika Erakundearen aurrekontua 12.994.000 eurokoa da 2018rako urteko programan aurreikusitako eragiketa estatistikoak finantzatzeko, Euskal Estatistika Planaren esparruan.

Bigarrenik, Lehiaren Euskal Agintaritzak 1.220.000 euroko aurrekontua izango du, lehiaren, lehiaren sustapenaren –

erakunde publikoei dagokienez– eta euskal gizartean lehiaren kultura sustatzearen aurkako portaeren ikerketara eta zehapenera bideratua.

Eta azkenik, Finantzen Euskal Institutuak 5.163.884 euroko ustiapen-aurrekontu bat eta 126.907.233 euroko kapital-aurrekontu bat izango ditu, euskal ekoizpen-ehunari eta, bereziki, zentro teknologikoei, ETE berritzaileei eta kapitalizazio ertaineko enpresei laguntza finantzarioa emateko programak kudeatzeko.

6. Ondorioa.

Hauek dira, azken batean, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018 ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege Proiektuaren munta eta ezaugarri nagusiak.

Ogasun eta Ekonomia Sailak orientazio estrategikoa emango die 2018rako aurrekontu hauei, berauek epe ertaineko horizonte batean txertatuta eta Sailaren plan estrategiko nagusien helburuekin lotuta.

Horretarako, urtean bi dokumentu egingo ditugu. Batetik, “Politika Publikoen Estrategia eta Garapenari” buruzko dokumentua, politikek helburu estrategikoak lortzeko egindako ekarpena analizatuko duena eta, bestetik, “Ekonomia eta

Aurrekontu Esparrua”, Jaurlaritzaren ekintzaren hedapenaren baliabide ekonomikoen agertokia eskainiko duena 2020 ekitaldira arte.

Azkenik, eta Jaurlaritzak Aurrekontuei buruzko Proiektua onartu zuenean egin nuen bezala, dei egiten diot berriz oposizioko alderdien erantzukizunari ahalik eta akordio zabalena lortzeko, gure ustez herritarrentzat positiboak diren aurrekontu batzuen inguruan, politika publikoak bermatu eta jarduera ekonomikoa eta enplegua bultzatzen dituztelako.

Eta amaitzeko, neure burua eskaintzen dut nik orain edo nirekin dauden kideek nire eskueran dauden argibide guztiak emateko.

Eta besterik gabe, zuen esanetara geratzen naiz.

Eskerrik asko, lehendakari jauna.